

**Gogoan izan lapurretak ez direla soilik udan gertatzen. Lapurretak prebenitzeko neurriak hartu behar dira:**

- Ez utzi giltzak lanpasaren azpian edo ezkutatuta.
- Erantzun atezain automatikoari, deitzen duten bakoitzean.
- Itxi beti giltzarekin, etxetik irtetean.
- Deitu Udaltzaingoari, gure ataritik zokomiran dabilzan pertsona susmagarriak ikusiz gero.

Etxeetako lapurreten %40 udan izaten dira. Hori dela eta, udari begira, zenbait ardura hartu behar dira. Etxetik kanpo denbora laburrez egongo bagara ere, eskura ditugun segurtasun neurri guztiak erabili behar ditugu.



Oporren aurretik, ezezagunen aurrean ez esan noiz irten eta itzuliko zaren, ez eta bidaiaren gaineko beste ezer ere (erabiliko den ibilgailua, oporretarako aukeratutako lekua, etab.).

Agindu senide edo auzokoren bati hel-tzen zaizun posta hartzeko, ez zaudela nabaritu ez dadin.

Agindu senide edo auzokoren bari pertsianak zabaldu eta ixteko, etxean "bizia" dagoelako sentazioa emateko. Era berean, programagailuak ere erabil ditzakezu, egongelako edo sukaldeko argiak piztu eta itzaltzeko, eta, horrela, efektu bera lortzeko.

Lorategia duten etxeetan, zuhaitz eta zuhaixketako adarrak inausita eduki, lapurrak ez daitezen ezkutatu edo sartu.

Ez utzi etxeko giltzarik lanpasaren azpian edo lore-ontzietan... ezkutatuta. Seguruagoa da kopia bat konfiantzako auzokoren bati edo senideren bati uztea, beharrezkotzat joz gero.

Itxi sarrerako atea giltzari buelta bat baino gehiago emanda, "txartelaren" metodoa erabilia ireki ahal izatea saihesteko.

Egiaztatu etxeko ate nagusiaren eta zoruaren artean ez dagoela tarterik, palanken erabilera saihesteko.

Ez utzi objektu baliotsurik (koadroak, bitxiak, eskulturak, etab.) denbora luzean jenderik bizi ez den etxeetan.

Konfiantzako pertsonaren bati esan non aurki zaitzaketen, beharrezkoa balitz.

Ez utzi oharrik atean, ez mezurik erantzungailu automatikoan, bertan ez zaudela esanez.

Garrantzitsua da oporretan ez doazen pertsonak auzokoen etxeetan, erkidegoetan edo urbanizazioetan izan daitezkeen mugimendu arraro edo zaraten berri ematea.

Ikuskatu postontzia, telefonotxoa edo etxeko atea, lapurrek zein etxetan lapurtu behar duten bereizteko egiten dituzten marken bila (lerro horizontalak edo bertikalak, esate baterako). Markaren bat badago, ezabatu edo egin ahal dena irakurtzeko modua izan ez dadin.

#### **LAPURRETAK PREBENITZEA FATXADAN ETA PATIOAN ALDAMIOAK DAUDEN ETXEETAN**

Eraikinetan aldamiok instalatzen dituztenean, gaztelieek etxebizitzera igozteko aprobeztatzen dute, ata haietan harrapatzen dituzten baliozko objektuak lapurtu. Horrelakoak zailtzeko:

- Itxi aldamiotatik sartzeko moduko leihoak eta pertsianak.
- Itxi aldamiotatik sartzeko moduko eskaileretako leihoak.
- Erretiratu aldamiotatik ikus daitekeen baliozko objektuak.
- Saiatu segurtasun-neurridun aldamiok instalatzen.



*Etxera iristean atea edo leihoa zabalik badago, deitu Udaltzaingoari eta azaldu gertatutakoa. Ez sartu, eta itxaron Polizia heldu arte.*

*Lapurra etxe barruan badago, ez egin aurre. Garrantzitsua da oinarri-zko xehetasunei erreparatzea (arropa, ezaugarri fisikoak, tatuajeak...), deskribapena Poliziari emateko eta, ondoren, balizko identifikazioa egiteko. Garrantzitsua da lapurrari aurre ez egitea, ezein kasutan.*

# UDA HONETAN, SAIHESTU LAPURRETAK ZURE ETXEAN

Etxeetako lapurretak saihesteko segurtasun neurriak

